

Mugimendu feminista indartuz, erakunde publikoen oztopoak eraitsiz eta eredu soziokulturalak deseraikiz, Peruko emakumeak indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubidea bermatu dadin lan egiten dugu

Tokiko Erakundea: [Manuela Ramos Mugimendua](#)

Iraupena: 2020 abenduak 31 – 2022 abenduak 31

Zenbatekoa: 546.242,51 €

Finantziaketa: [Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia](#)



Helburua:

Peruko **Lima, Ayacucho eta Ucayali** eskualdeetan nerabeek eta emakumeek indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubidea defendatzen laguntzea, batez ere, herritarren artean diskriminazioa eragiten duten eredu soziokulturalen prebentzioan eta desagerraraztean eragiten.

Laburpena:

Proiektuaren helburua Peruko hiru eskualdetan nerabeek eta emakumeek indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubidearen defentsan laguntzea da. Horretarako, proiektuak honako hau proposatzen du:

- Emakumeak ahalduntzea, beren lurraldean eragin politiko, mediatiko eta sozialeko prozesu baten protagonistak izan daitezen, beren eskubideen defentsan.
- Mugimendu feminista indartzea eta eskualde bakoitzean emakumeen eskubideen alde lan egiten duten erakundeen sare-lana sustatzea.
- Betebeharren titularren gaitasunak indartzea eta eragile horien eta gizarte zibilaren artean koordinazio-guneak sortzea.
- Genero-desberdintasunaren eta indarkeria matxistaren oinarri diren eredu soziokulturalen aldaketak sustatzea.